KALAPUTXI

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA 2019k0 urria 198. zenb.

Alarico

Galiziako ateko mutrikuarren ostatua

Aldez aurreko borondateen dokumentua

Urriko eguna, argiko eguna

Motrikutik Australiara, bertsotan

Eraldaketa da bidea: etorkizuna

ZINIA MUTRIKUN (I)





Gorritxu
autoak

Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU
943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai 943 19 50 26
..... 626 61 13 92
Lon Apraiz 943 60 32 50
..... 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar) 943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar) 943 74 11 77
Yudego (Elgoibar) 943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) .. 943 74 12 77
Ana Mandiola (Eibar) 943 82 05 33

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte 943 60 34 10
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 19 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 35 45
Udal Euskaltegia 943 60 37 80
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
ANTON taxia 666 22 19 99
XABI taxia 656 28 90 26
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 902 10 12 10
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 902 54 32 10
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87
Bikario etxea 943 60 39 88
Santa Catalina eleiza 943 60 32 00

Iritzixa

Pello Ulazia Ibarzabal

PINUEN GAITZA ETA KOKOTEROAK

Asunto: KALAPUTXI **2019/9/25**

Egun on Pello,

Kalaputxitik idazten zaitugu, eskean gatoz (...) Iritzixa idazteko prest izango zinela eta, atrebentziaz, hori eskatzera gatoz. 300-350 hitz inguru eskatzen ditugu, gaia librea eta bidaltze epea urriaren 11 izango litzateke. Arazorik badago esan lehenbailehen faborez. Mila esker aurretiaz.

- - - -

www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

						ostr. lanegun
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	Ig 20:30	Lr 21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	Lr 7:15	Ig 8:15	orduro	20:15	21:25	Lr 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	Lr 6:50	Ig 7:45	orduro	Lr 21:45	Ig 19:45
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35
Mutriku	7:55	8:55	orduro	22:55	20:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Lr 8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	Lr 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	Lr 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	Lr 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	Lr 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxi.eus/garraioa

GURE AMETSA DANTZA TALDEA

2019/2020 IKASTURTEAN ERE GORPUTZA ASTINTZEKO PREST

Kalaputxik eskaintzen digun tartetxo honen bidez aurtengo ikasturteko gure asmoak azaldu nahi ditugu.

Alde batetik, jada gure herriko ume zein gazteak hasiak dira ensaioak egiten. Txikienek, ikasturte amaierako emanaldiak izango dituzte jomugan, beste batzuk, beste herrietako euskal jaietara ere aterako dira eta zaharragoek aldiz, Gaba Beltza, Iñauteriak edo San Juanak girotzea izango dute helburu, besteak beste.

Gure lana, baina, orain dela urte batzuetatik hona helduagoengana ere zuzentzen dugu. Azken urteetan ikastaro hauek beherakada handia izan dute eta, aukera ezberdinak planteatzen aritu ondoren, honakoa erabaki dugu: alde batetik, ikasle berriei otsailetik aurrera eskainiko diegu ikastaroa Beheko plazako gure lokalean. Dantzan badakitenentzat, aldiz, bi hilabetean behin, hileko hirugarren zapatuz, dantza poteoa antolatuko dugu herriko txoko ezberdinetan. Aurrerago kartel eta mezuen bitartez zehaztuko ditugu orduak eta lekuak. Aukera bikaina izango dugu dantzak errepasatu eta herrian giro paregabea sortzeko. Hala ere, Euskal erromerira begira maiatzean pare bat errepaso saio antolatuko dira.

Beraz, aurrerago ere izango duzue gure berri. Abarketak prest izan etxean badaezpada.

Dantzatzen duen herria inoiz hilko ez delako, bete ditzagun plazak dantzan!



GURE AMETSA dantza taldea

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian hirugarrenek adierazitako esan-iritzien erantzukizunik.

Argitaratzailea **Karenka Komunikazio Elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **kalaputxi2001@gmail.com / aldizkaria@kalaputxi.eus**
Web gunea: **www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, Ibon Aginaga**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

ERALDAKETA DA BIDEA: ETORKIZUNA

Aurreko ikasturtean berrogeita hamar urte bete-eta, hausnarketara bultzatu ditu urte osoko bilerek, antolaketek eta proiektu berriek. Aurten, beraz, metodologia berrietan murgildu eta eraldaketaren apustua egin du Goizeko Izarra Ikastolak.

Aurreko ikasturtea hausnarketarako urtea izan zen bezala, aurtengo ikasturtea praktikan jartzeko urtea izango da. Horregatik, ikasturtea hasi aurretik, formakuntzak jasotzen hasi dira ikastolako irakasleak. Hain zuzen ere, proiektu eta ekintza interesgarriak dituzte aurretik: Erasmus+ (hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirol arloetan 2014-2020 aldirako Europako programa), EKI proiektua, STEAM hezkuntza (Zientzia proiektua), Bidelaguna, Hizkuntza murgiltze programa, SARE hezkuntza, eta baita, aurreko urteetan aurrera eraman dituzten beste hainbat ere. Horrez gain, Haur Hezkuntzako irakasleak metodologia berrietan murgiltzen hasi dira; konfiantzazko pedagogiarantz apustua eginez. Azken horiek, etapa osoko metodologia aldaketa egin dute; espazioak, baliabideak eta ohiturak aldatuz. Alegia, apustu handia. Haurren beharrak eta gaitasunak errespetatu eta garatzen lagun ziezaiekeen metodologia berrien bila hasi dira; alderdi afektiboari eta emozionalari garrantzia emanez.



Erabaki horrek aldaketak ekarri dizkie hainbat arlotan:

ESPAZIOEN ANTOLAKETA

Begi-bistakoa da haur hezkuntzako gelek aurtengo udako oporretan izan duten eraldaketa. Espazio goxoak sortu dira: ikasleari konfiantza transmitituko dien guneak, erakargarriak, espazio aberatsak eta euren kabuz ikertzen jarduteko aukera emango dien guneak. Horretarako hainbat helburu-gune sortu dira: zientziarekin eta matematika arloekin lotura dutenak; antzerkia, errepresentazioa eta rol ezberdinak betetzeko aukera emango dien tarteak; hizkuntza, irakurketa eta hizkiekin lotura dutenak; psikomotrizitatea eta mugimendua ahalbidetuko dien espazioak; eta, artearekin loturiko guneak.

Gaitasun guzti horiek garatu ahal izateko, konfiantza izan behar dute bere buruarengan, besteengan eta inguratzen dituen horretan.

IRAKASLEEN ESKUHARTZEA

Irakaslea ikaslearen bidelagun izango da, eta, ikasleari gaitasunak, beharrizanak eta zailtasunak deskubritzen lagunduko dio. Alegia, haurra espazio horietan seguru sentitu dadin, irakaslea eta familiaren arteko elkarlana ezinbestekoa izango da; oso ondo landu behar da, batez ere, etxetik ikastolarako trantsizioa, haurra benetan seguru sentitu dadin bi lekuetan.

BALIABIDEEN ANTOLAKETA

Horrez gain, metodologia aldaketak, baliabideak aldatzea ekarri du. Urtxintxa karpetak erabiltzeari utzi-eta,






irakasleak beraiek sortuko dituzte proiektuak. Ikasleen jarraipena egiteko ere, ikuspegia aldatu eta jarraipen fitxak osatuko dituzte. Jolasak berriz, naturalak (egurrezkoak, hondarra, beira…) erabiltzearen aukera egin dute. Beraz, aurreko ikasturteetatik erabiltzen zituzten baliabideak eta ezagutu berri dituzten baliabideekin, bide berri bat egitea da helburua.

Guzti horretan laguntzaile eta tutore gisa, Aizarnazabalgo Basakaitz ikastetxea izango dute; Partekatuz ikasi proiektuan elkarlanean arituko dira.



FAMILIEKIN HARREMANA

Ikastolak familiekin eta komunitatearekin harremanak sendotzearen garrantzia azpimarratzen du. Horrela, irakasle eta familien arteko loturak indartu egiten dira eta konfiantza-giroa sortzen da. Horrek guztiak erraztu egiten du, batetik, haurrak bere irakaslearekin atxikimendua sortzea, eta, bestetik, espazio berrietan eroso eta babestua sentitzea. Hain zuzen ere, ikasleak bere buruarengan konfiantza sentitu behar du garatu behar dituen gaitasun guztiak garatu ahal izateko. Aldi berean, irakasleengan zein ikaskideengan ere konfiantza izan behar du, eta seguru sentitu behar da. Hori hala izanik, aurten, gurasoak beraien seme-alabak gelaraino lagundu eta bertan agurtzeko aukera izango dute; denbora-tarte malgua izango dute goizero.



Ondorioz, gaur egun hezkuntza-munduko eragile askok aipatzen duten bezala, Goizeko Izarra ikastolak ere, eraberritzeko beharra ikusi eta aurrera eman du pausua; edukietan oinarritutako hezkuntza-ereduak albo batera utzi eta gaitasunetan eta bizipenetan oinarritutako ereduetara bideratu du bere begirada. Aurrerako pausua ematea ez da izan erraza. Urte osoko hausnarketek eta formakuntzek lagundu diete, eta Nere Inda bezalako adituak trebatu ditu. Aldi berean, Hezkuntza komunitatea osatzen duten partaide guztien arteko harremana zaintzearen eta herriarekin zein herriko eragileekin elkarlanean jarraitzearen garrantzia azpimarratu dute.



ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268



HAMAR URTE BERANDUAGO

Endika A. Garalde Mutrikun bizi den ondarrutarrak inguruan jasotako babesa eskertu nahi izan du.

2009ko Lekeitioko Antzar Egunean gertatutako istiluetako partaide ez izan arren, Ertzantzak beste sei lagunekin batera atxilotu egin zuten zorigaiztoko gau hartan. 2012an, berriz, Madrilgo Auzitegi Nazionaletik pasa ondoren, 2-3 urteko gartzela zigorra eta 95.010,98 euroko isuna eskatu zuen fiskaltzak zazpi lagunentzat.

Gartzelara ez joatea fiskaltzarekin adostuta, urteak pasa dira inolako komunikaziorik gabe, ondorioz, kontua artxibatutzat eman zuten. Baina usteak erdia ustel, egun badakite gartzela zigorra bost urtera artxibatzen dela, baina erantzukizun zibila hamabost urtera, beraz, 13.573 euroko isuna ordaindu beharko du Endikak.

Bere soldatatik zati bat enbargatu arren, Lekeition, Ondarrun eta Mutrikuko jaietan hainbat elkartasun ekintza burutu dituzte beharreko sosak bildu asmoz.



PERRETXIKO SASOIAN

Udazkena izaten dugu herrian onddo biltzaileak basoetan gehien saiatzen diren urtaroa. Aurtengo honetan esaten ziguten onddo eskasia dagoela, euria ohi baino askoz gutxiago egin duelako. Hala ere, jarraitzen zuten, aspaldi honetan onddoak baino biltzaileak gehiago ugaritu direla, eta horiei berdin zaiela euria egin edo ez.

"*Ez garela, baina bagaittun, Mari Petralin ez ezik, beste guztiok ere hemen gaittun*" zioten Ataungo sorginek, eta horrelako zerbait adierazi nahian, argazki bat bidali digu biltzaile horietako batek. Galdetu diogunean non bilduak diren, ohikoa duten erantzuna jaso dugu: "*hor zehar*". Eta horrekin gelditu gara, argazkia usainduta ez baikara jabetzen Ordiziako azokan erositakoak diren ala ez.

Dena den, ea euriak laztantzen duen lurra, eta jaki goxo horiek dastatzera iristen zareten. Guri ere gustatzen zaizkigu!

AFAGI ELKARTEKOAK KALEAN

Askotan gaisotasunak bakardadean eta ezkutuan igarotzen dira. Eta tokatzen denean, nora jo ez da jakiten. AFAGI elkartekideak kalera atera dira Alzheimerraren munduko egunean beren lana herritarren aurrean bistatzera eta eskaintzera. Horixe delako elkartearen helburu garrantzitsuena: alzheimer gaisotasuna modu batera edo bestera jasaten duten herritarrei laguntasuna ematea. Horretarako, laguntza beharra duenak Eibarko bulegora jo dezake, Ardantza kaleko 1-3 behean, aurrez 943 297 118 telefonora deituta. Gainera, elkarteko profesionalek Mutrikun ere egiten dute arreta, astean behin.



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



GOIZEKO IZARRA IKASTOLAKO IRAKASLEAK ATENASEN

Atenasen izan berri dira Goizeko Izarra ikastolako hiru irakasle; Erasmus + KA201 izeneko proiektuaren lehen topaketan. Proiektu horretan Europako sei herrialdek hartuko dute parte: Belgika, Italia, Turkia, Grezia, Euskal Herria eta Finlandia. Azken hori da proiektuaren koordinatzailea. Eta, aipatu behar da Hezkuntza sistemen kalitatea neurtzen duten sailkapen guztien aurreneko postuetan egotea lortu duela Finlandiak azken urteetan. Beraz, beraien gidaritzapean lan egitea pozik hartu dute mutrikuarrek. Guztien artean, naturarekin lotura duen elkarlana osatuko dute. Hain zuzen ere, landuko dituzten gaiak hauek izango dira: Ura, eguzkia, lurra eta haizea. Irakasle, zein ikasleek landuko dituzte elementu horiek ikastetxean, ondoren beste herrialdeko kideei aurkezteko. Proiektua aurrera eramateaz gain, Europa mailan dauden hezkuntza sistema ezberdinak eta lan egiteko moduak ezagutu eta beraietaz jabetzea da helburua. Hasiera Grezian eman diote, eta esperientzia oso aberatsa izan da. Baina, abenduan, Goizeko Izarra ikastolari tokatuko zaio beste estatuei harrera egitea; gure hezkuntza sistema azaldu eta Mutrikun daukagun aberastasuna eta edertasuna erakutsiko die.



OSAKIDETZAREN ARGAZKI LEHIAKETA

Argazki-lehiaketaren oinarriak:

- Argazkiak originalak eta berriak izango dira.

- Parte-hartzaileek hiruna argazki aurkezteko aukera izango dute.

- Argazkiak koloretan edo zuri-beltzean bidaliko dira korreo honetara:
bpso.osidebabarrena@osakidetza.eus

- Parte-hartzaile bakoitzak bere argazkiei inskripzio dokumentua eta irudia biltzeko eta zabaltzeko baimena erantsi beharko dio.

- Irabazten duen argazkiari errekonozimendua emango zaio abenduaren 20an Mendaroko Ospitaleko ekitaldi-aretoan, eta irabazleari horren berri emango zaio aurretik.

- Argazkiak aurkezteko epea, azaroaren 16ra arte.



ESKERRIK ASKO GALBAIXOKO JAI BATZORDEARI

Joan den irailaren 22an, Galbaixoko jaietan, bertako jai batzordeak auzoko emakumeak omendu zituen. Auzotarren eguna zela aprobetxatuz, jaietan urteak lanean daramatzaten, eta, azken hamarkada honetan gazteei laguntzen jarraitu duten emakumeei nolabaiteko aipamena egin nahi izan zien; bertso eder bat kantatuz eta oroigarri txiki bana emanez. Omendutako sei emakumeek hunkiturik eta ezustean hartu zuten oparia. Idatzi honen bitartez ordea, jai batzordean dauden gazteei esker ona erakutsi nahi die izan duten detaileagatik.
Eskerrikasko Galbaixoko Jai Batzordeari.

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak..)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

oreka zentroa
Masajea eta osteopatia
Hitt entrenamendua
K-Stretch luzaketak
Posturologia
Enterenamendu planak
Oihana: 605 735 911 Jon: 696 675 665
gorputzoreka@gmail.com
Jose Maria Alzibar 12, behea - Mutriku



#ALTSASUKOAK**ASKE**

Auzitegi Gorenaren epaiari erantzunez euskal herrietan elkarretaratzeak egin dira urrian, eta mutrikuarrak ere elkartu ziren isil-isilik baina ozenki aditzera emateko Altsasukoen ondoan daudela. Injustiziaren aurrean, mobilizazioa eta elkartasuna. Hurrengo hitzordua, urriaren 26an Iruñean.

euskararen GinKana.eus
HIZKUNTZA - EKOLOGIA
DEBABARRENA
1.edizioa


4. DBH-KO IKASLEAK EUSKARAREN GINKANAN

Mutrikuko Institutuan 4. DBH burutzen ari diren ikasleek Debabarreneko Euskararen Ginkanan, euskararekin eta euskaraz dibertitzeko lehiaketan, hartuko dute parte aurtengo urte amaiera bitartean.

Euskararekin, hizkuntza aniztasunarekin eta hizkuntza-ekologiarekin lotutako hainbat proba burutu behar izango dituzte talde lehiakideek bi fasetan:

1. Fasea: INTERNET BIDEZKO PROBAK. Lau aste iraungo ditu fase honek, urriaren 23tik azaroaren 20ra. Webgunean, astero taldeek burutu beharreko proba bat argitaratuko da eta astebete izango dute taldeek erantzunak bidaltzeko. Proba hauetan puntu gehien lortzen dituzten lau taldeek jokatuko dute bigarren fasea.

2. Fasea: FINALA. Abenduaren 4ean jokatuko da Eibarren. Bertan erabakiko da nor den Debabarreneko Euskararen Ginkanaren talde irabazlea!



RIKARDO ARREGI ARANBURU

Berrogeita hamar urte bete dira 1969ko uztailaren 10ean auto-istripuz hil zela Mendaro parean, Ramon Saizarbitoriarekin Bilbora zihoala Euskaltzaindiaren bilera batera.

1942ko irailaren 22an Andoainen jaioa, hamar urterekin seminariora, eta hogei urterekin hura utzi Ekonomia Zientziak ikasten hasteko. Aldi berean izan zen kolaboratzaile Zeruko Argian, Anaitasuna eta Jakin aldizkarietan. Irakasle jardun zuen aldi batekoz Donostiako Santo Tomas Lizeoan, eta handik gutxira Pax-Christi erakundeko kide zen. 1964an euskaltzain urgazle izendatu zuten, eta urte berean Martuteneko kartzelan eduki zuten EGIko kide izateaz akusaturik. 1965ean artikulugile onenen Lauaxeta kazetaritza saria jaso zuen.

Hamazazpi hilabete soldaduzkan egin ondoren, itzuli eta alfabetatzeari buruzko bigarren txostena aurkeztu zion Euskaltzaindiari. Lur editoriala bultzatu zuen Ramon Saizarbitoriarekin, Ibon Sarasolarekin, Arantxa Urretabizkaiarekin eta beste zenbaitekin batera.

Galera mingarria izan bazen ere haren heriotza, hark ereindako haziak fruitu ugari eman ditu. Gaztea izanda ere, lan mamitsuak idatzi zituen. Euskalgintza, pentsaera, kazetaritza, politika eta abarretako gaiak aztertu zituzten bere lagun eta jarraitzaile esanguratsuek, eta liburuetan publikatuak laster baten. Orduko gazte askorentzat erreferente bat izan zen.



hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

urria

urriko eguna, argiko eguna

(Goizeko) seietan argia, (arratsaldeko) seietan iluna.

Igaro dira hilabete batzuk egunak mozten hasi zirenetik (Donibane/San Juan egunetik); jada iluntzeak ez dira zortziak inguruan izaten. Gainera, urriaren 27an, berriz ere ordua aldatu behar; goizaldeko hiruretan, ordu biak izango dira.

Antza denez, hilabete honekin bukatzen da nekazal urtea baserritarrentzat. Zenbaitentzat urri hila izango da; hilabete eskasa edo uzta gutxikoa. Baina, "biltzila" (biltzeko hilea) ere deitzen omen zaio, eta horrek, urritasuna adierazten duen esanahiari indarra kentzen dio. "Urria" izenak zuhaitzetako hostoekin zerikusia duela diotenak ere ez dira gutxi.

Testua idazten hasi naizenean, ordea, honakoa etorri zait burura: "hurrak ere ez dira garai honetakoak? hori baieztatuz gero, "Hur+hila" ere izan litekeelako". Egia esan, ez dut inon irakurri hilabetearen izena hortik etor litekeenik, baina udazkena hurrak biltzeko urtaro aproposa dela aurkitu dut hor nonbait (eta bai, aurreko astean izebaren etxera joan nintzenean horixe baieztatu zidaten berak bildutako hur mendiek).

Dena den, hilero bezala, azalpenetan sartu aurretik, hile hau izendatzeko erabilitako zenbait izen aipatuko ditugu: urria (G), urrila, urila, ürrieta (Z), urri bigarrena (B), bildila/biltzila, lastaila/lastaia (N)...

- Urria/(h)urrila/urila: zenbaitek orri+hila baturatik datorrela esaten du; hau da, orrien hilabetea edota orriak amiltzen diren hilabetea izango litzateke. Urrian, orriak urri (zuhaitzetan, noski). Halere, bururatu zaidan "hur+illa" hipotesia ez nuke berehalakoan baztertuko.

- Ürrieta: Orri>Urri aldaera: "-eta" atzizkia gehituta izango litzateke. Aurreko azalpenaren hariari tiraka, honakoan ere ikusten da izen honek bere barnean "orri" hitza izan lezakeela, eta... "-eta", "-aga" eta "-di" atzizkiek zerbait dagoen tokia edo zerbait horren ugaritasuna adierazten dutenez, argi dago (Adibidez: "pagoETA", "pagoAGA" eta "pagaDI" izenek pago zuhaitzak dauden tokia adierazten dute, "AginAGA" abizenak hagin zuhaitzak dauden tokia edo zuhaitz horien ugaritasuna adierazten duen bezalaxe). Arteta, Arteaga, Artadi, Aritzeta, Aritzaga, Arizti/Aristi... izan litezke beste adibide batzuk. Norbere abizenen esanahiak ikertzen eta ulertzen hasteko bide polita eman lezake horrek.

- Bildila/biltzila: bildu+hila baturatik eratorritako izena da hau, eta uzta biltzeko hilabetea izango dela suposa genezake.

- Lastaila: "lasto" eta "hila" hitzak ezkonduta sortzen den izena da, eta Nafarroan erabiltzen den izen honek lastoaren erabilerarekin du zerikusia.

Mutrikun, aldiz, **"urrixa"** deitzen zaio hilabete honi.



Gaba beltza

Gauak egunero beltzak edo beltz antzekoak dira nik dakidanez. Hala ere, bada bat, hain zuzen ere hilabete honetan, beltzetan beltzena omen dena; Gaba beltza deitutakoa, noraezean dabiltzan arimen gaua (urriaren 31n). Eta... urteko hamargarren ilargi betea urriaren 13an izan bazen ere, argi izpiren bat edo beste emango dio hilen argiak urteko gau ilunenari.

Gaba beltzaren hurrengo eguna ere nahiko beltza izango da, ziurrenik, askorentzat; "Zapato azule eta gero, domeka baltza", esaten den gisara.

Orain, askok Halloween izeneko jai ingelesa sartu nahi digutela uste arren, esan beharra dago gurean jai hau ospatzea aspalditik datorren ohitura dela.

Iluntasunari barre egin eta suaren inguruan dantzan aritzetik, banpiroen enkantuei amore ematera igaroko gara. Zenbat doinu eta keinu azaroko edota infernuko ateetan!

Ibon Aginaga Imaz

OKILA
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

ALARICO

Galiziako ateko mutrikuarren ostatua

Epifanio Bermudezek eta Concha Dominguezek beren sorterri Galiziatik irten behar izan zuten bizimodua aurrera ateratzeko. Mutrikun ezkondu eta Erdikokalen eta Alegria kalean bizi izan ondoren Gaztañeta auzo orduan berrian ezarri ziren, munduratu zituzten lau seme-alabekin: Begoña, Jose Ignacio, Marian eta Bruno. 1982 urtean Allarizera joan ziren, baina beraien mutrikuar izatea ez dute galdu, eta ez dute galtzeko. Allarizen egin diegu bisita, eta mutrikuar askorentzat Galiziako ate den Alarico ostatuan hartu gaituzte lau anai-arrebek.

Galiziatik Euskal Herrira etorri ziren zuen aurrekoak...

Garai hartan beste galiziar asko bezala gure gurasoek gerra ostean Galiziatik irten egin behar izan zuten bizimodua ateratzeko, Galizian ez baitzen etorkizunik ikusten. Aita, A Koruñako Do Pinto herritik Ondarroara etorri zen itsasora. Ama, Ourenseko Allariz herritik Debara, Monreal ostatuan zerbitzera. Deban elkar ezagutu zuten eta Mutrikura ezkondu ziren, hemen beren familia osatzera, eta gu sortu ginen.

Mutrikun bizi izanda ez zenuten Galiziarekin harremanik galdu.

Gurasoek ez zuten beren galiziar izatea inoiz galdu. Hori bai, amak esaten zuen moduan, beren urte onenak Mutrikun eman zituzten, eta oso eskertuta zeuden Mutrikuri. Eta Mutrikun hain gustura bizi izanda, urtero, Galiziara joaten ginen udako oporretan, Allarizko amaren aldeko familiarekin eta Do Pintoko aitaren aldekoarekin.

Mutrikutik alde egitea gogorra izango zen...

Oso gogorra izan zen hamazortzi eta hamabost urteko gazteentzat bizilekua aldatzea. Adin horretan lagunartetik alde egitea kolpe handia izan zen gure bizi-tzetan, azken batean guk eskatu ez genuen aldaketa bat izan baitzen. Han ere bagenituen familiakoak eta lagunak, baina ez zen gauza bera...

Itsasoa izan zen, beharbada, gehien faltan hartu genuena, kresal usaina. Eta agian horregatik oroitzen dugu Mutri-ku kresal usainarekin. Kostaldetik barrualdera aldatzean klima berria ere gogorra egin zitzaigun oso: udako 40 graduko tenperaturak eta neguko zero azpikoak.

Zerk bultzatu zintuzten aldaketa egitera?

Garai hartan aita itsasoa lagata eta Elgoibarko Sigman zihardu lanean, eta krisia heldu eta langabe geratu zen. Amak Allarizera egindako bidaia batean bide ondoko ostatu bat errentan hartzeko aukera ikusi zuen eta hurrengo asterako erabakita zuten. Hantxe hasi ginen familia osoa lanean.

Eta handik Alarico ostatura...

Bide ondoko hura errentan geneukan eta gurasoek pentsatu zuten egokia izango zela geure kabuz zerbait abiatzea. Allariz herria hazten zegoen eta etxedi berri batean inbertituta gaur egungo ostatua egin genuen 1990 urtean: taberna, jatetxea eta 14 logela duen ostatua, Alarico izena duena.

Hasiera haietako oroitzapen berezirik bai?

Gure ostatua ireki genuenean herrian tira-bira handiak izan ziren maila politikoan, eta ordura arteko egoera politikoa eralduko zuen *Fillas da revolta* mugimendu soziala hurbil--hurbiletik bizitzea tokatu zitzaigun. Garai gogor haietan egindako lagunak gaur artean ekarri ditugu, eta oso harro gaude horretaz.



Lau anai-arrebak, gurasoekin, Mutrikun

Ia berrogei urtetan lau anai-arrebok



ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

eraman duzue negozioa...

Hala da, lehenengo gurasoekin eta, haiek hil ostean, geure kabuz. Ama ekintzaile sutsua izan zen eta berak ikusi zuen gure etorkizuna hemendik joango zela. Guk hark hasitako bideari jarraipena eman diogu. Urte asko dira, eta, egia esan, egon behar diren eztabaidak egoten badira ere, oso ondo konpontzen gara gure artean. Zorte handia izan dugu horretan.

Eta aurrera begira?

Adinean aurrera goaz, eta argi dugu negozioarekin jarraitu nahi dugula. Hori dela eta, inbertsio berri batzuk egin beharko ditugu, baina horiek ondo neurtu nahi ditugu gure zahartzaroa hipotekatu gabe. Gainera, argi dugu atsedenari garrantzi handiagoa eman behar diogula eta urtean zehar astean behingo atseden eguna hartzen hasi nahi dugu.

Mutrikurekin harremanik ez duzue inoiz galdu...

Gu Allarizen bizi garen mtrikuarrak garela hartu behar duzu kontuan. Esaten dute umetan eta gaztetan bizi izandakoak bizitza osoan zehar gordetzen direla, eta guk gure haurtzaroa eta gaztaroa Mutrikun eman ganituen. Orduan izandako bizipenak eta lagunak gaur artean gorde ditugu eta hil arte gordeko ditugu, ez izan zalantzarik!

Adinak dituen inguruabarrek asko baldintzatzen dute bizimodua, eta, seguru, nahi baino gutxiagotan egin dugu Mutrikurako bidaia, izan dugun ofizioak eta hartutako obligazioek zailtzen zutelako, baina etxeko ganbaran gordetzen dugun kutxa batean ditugun eskutitzek argi uzten dute Mutrikurekin eta mutrikuarrekin izandako harremana. Ez zen egoten asterik Mutrikutik zetorren gutunik gabe. Gaur egun, gainera, sare sozialek erraztasunak ematen dituzte eta harreman hori indartzeko balio dute.

Inoiz pentsatu al duzue Mutrikura itzultzea?

Beti izan dugu argi guri egin zigutena ez geniekeela egin nahi gure ondorengoei. Gu mutrikuarrak gara, baina gure seme-alabak allariztarrak dira eta hauxe da beren tokia. Gurasoen euskalzaletasuna transmititzen saiatu gara, eta badakite beren aiton-amonek eta gurasoek non dituzten sustraiak. Baina nekez ikusten dugu etorkizun bat Mutrikura bizitzera itzultzeko.

Mutrikuar asko pasatzen dira Alarico ostatutik...

Hala da, bai. Etorri ginenetik asko izan dira gure etxetik igaro diren mutrikuarrak. Lehenengo bide ondoko ostatutik eta ondoren Alaricotik. Hasierako urte haietatik hona bidaiatzea asko aldatu da eta ibilgailuak eta errepideak hobeak direnez, jendea gehiago animatzen da bidaiak egitera. Lehen ordu gehiago behar ziren, baina gaur egun sei ordutan sartzen zara batetik bestera. Egin kontu, Brunoren kintadakoek ere azken bi urteetan non egin behar kintada eta Alaricon!

Alaricoko bankua ere ospetsu egin da...

Txantxetan hasitako kontua izan zen argazkia banku horretan ateratzearena, baina gaur egun obligazioa dute Allarizera datozen mutrikuarrek eserleku horretan argazkia ateratzea. Eta ilusioa egiten digun kontua da, bai. Hemengo bezeroek “el banco de los mutrikuarras” esaten diote. Eta jakin ezazue beti izango dugula prest banku hori zatozten mutrikuar guztiontzat!



Lau anai-arrebak, Alaricon, Allarizen

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

ZINIA MUTRIKUN (I)

Lumière anaixek 1895eko iñuxente egunian proiektatu zeuen historixako lehelengo pelikulia, Parisen. Iñork ez zoan pentsatzen orduan, urtiekin "mugimenduzko irudi" harek hartuko zeuen dimentsiua. Halako baten, Mutrikura ere aillegatu zan "zine" izenez ezagutzen zan ikuskizun haura...

XX. gizaldixaren hasieran, asmakizun haren izena zabaltzen juan zan poliki-poliki: "zinematografua". Grezierazko bi hitz zakazen oiñarrixan: *Kinema* 'mugimendua' eta *gráphein* 'idatzi, grabatu'. Ordura arte argazkixak baiño ez ziran ezagutzen, geldi zozen irudixak hain zuzen ere; baiña, teknika berri harekin mugitxu egitxen ziran irudixak!!! Izen xelebre harek beste bi ekarri ziguzen: "zine(a)" eta "zinema".

ZINIA PLAZAN

Gaur egun, toki itxi eta eroso batekin lotzen degu zinia. Baiña, sasoi baten aire zabalian izaten zan, eta ez edonoiz gaiñera, herriko jaixetarako baiño ez zan ekartzen zinia Mutrikura.

1908. urteko Madalen-jaixetan 500 pezeta gastatu zitxuan udalak: "*de cinematógrafo, toreros, pelotaris, toros, cuadra, cerrar la plaza y des-cerrarla*".

Udalak ixa urtero ekartzen zoan zinia. Zine mutua, jakiña. Txurruka plazan, adin guztietakuak batuko ziran: ume, gazte, heldu eta edadekuak... Hasieran, harrigarrixa egingo zakuen mutrikuarrei irudixak mugimenduan ikustia. Ulertzeko ere gaitza. Hori dala-eta, Bergara aldian behiñik behin, "*paretako sorginkerixia*" esaten zixuen.

1911. urtian Eibarko Pedro Crucetak, karta bidez, zinia eskeiñi zion Udalari, "*ofreciendo el Cine por 260 pesetas, para las dos noches de Magdalena, siendo de cuenta del Ayuntamiento la fuerza del fluido, y la colocación de la tela para el cine*". Hala ere, urte hartan, gastu handixa zala-eta, udalak ez zoan kontratatu zerbitzu haura. Orain, diru gitxi iruditzen zaku hori, baiña orduan dirutzia zan.

1912ko jaixetan, elementu zentrala izan zan zinia: "*las fiestas proyectadas por la comisión de festejos consistentes en novilladas, cine y juego de carnero*". Francisco Rocamorak ekarri zoan orduan zinia. 250 pezeta pagatu zixuen, eta horri lotuta beste gastu hau ere azaltzen da udal kontuetan: "*11 pts por la colocación del Kiosko del cine*".

1914an, Madalen bezperan, garagarrillaren 21ian, bi pelikula eman zitxuen. *Madalen* egunian ere zinia egon zan, gabeko 9,30etan; baitxa *Madalen txiki* egunian ere, nahi arratsaldez, nahi gabaz. Urte hartan ere Rocamorak ekarri zoan zinia (200 pezeta) eta Francisco Arrizabalagak hartu zoan kioskua jartzeko arduria (15 pezeta).

Madalenetan bakarrik ez, Galbaixuetan ere ekartzen zeuen tarteka zinia. 1914. urtian, konparaziotarako, Rocamoraren eskutik izan ziran zine-emanaldixak: "*el cine para las fiestas de Sta Cruz (...) que puede venir para dichas fiestas en la misma forma y condiciones que vino por las fiestas de Magdalena, empezando con la prueba el día 13 tres peliculas y dando proyecciones los días 14 y 15 con películas variadas*".

Zinia normalian plazan izan arren, baiña badirudi 1915. urtian leku itxi baten egin zeuela. Hortarako, udalak Casimiro Saizarbitoria sastre edo jostunari Txurruka plazako dendia hartu zion errentan. 7,50 pezeta ordaindu zixuen. Orduan ere Pedro Crucetak ekarri zoan zinia.

1915. urte hartako galbaixuetarako José Rocamorak ekarri zoan zinia, baiña udalak "balditza" edo kondizio batzuk jarri ziozen: "*que traiga novedades y dé gusto al público, viniendo con tiempo a prepararse*". Iraillaren 13an, 14an eta 15ian eman zitxuan pelikulak.

1918ko jaixetan ere zinia egon zan. Baiña ikuskizun moderno harekin batera, jakiña, tradiziozko jarduerak ere egon ziran: pelota-partiduak, aizkora-jokua, saltakarixak eta zintxa-karrerak.

Gauzak hola, mutrikuarrek zinia jaixekin lotzen zeuen, harik eta urte osorako zine-aretua zabaldu zeuen arte...

"SALÓN-CINE MOTRICO"

1926ko zemendixaren 27xan Mutrikuko udalak Agapito Yurritaren eskaeria aztertu zoan. Udalak Zubiaga plazan zakan lokala eskatzen zoan, bertan zine-emanaldixak antolatzeko: "*pidiendo el local de la bodega de la casa carnicería vieja para dar funciones de cinematógrafo*". Baiña, ukatu egin zixuen eskaeria, alkateordia zalako. Hori ikusitxa, handik hamar egunera, bere koñatua zan Cesareo Zumalabek aurkeztu zoan eskaeria. Eta hari onartu egin zixuen eskatutakua. Errentan eman zixuen lokala, bost urterako; 135 pezeta urtian, eta bigarren urtetik aurrera, urteko 10 pezeta karuago.

Gaztetxia daguan etxia zan zinia, goiko pisuan. "Matadeixa" izenez ezagutzen dan eraikiña hain zuzen ere. Ziniak, itxura danez, "*Cine Motrico*" edo "*Salón-cine Motrico*" izena euki arren,



herrixak "Zubixako zinia" esaten zion.

Abenduaren 19an inauguratu zeuen. Hala eman zoan horren berri Euzkadi egunkarixak: "*Tuvo lugar el domingo la inauguración del nuevo cine que, con caracter permanente, han instalado en la plazuela de Zubiaga. Sus secciones, que fueron tres, constituyeron un éxito franco, sobre todo de taquilla, respondiendo el público hasta con exceso en cuanto a la última sección*". Argia astekarixak ere jaso zoan albiste pozgari haura. Hona hemen Arno-Mendi idazliaren hitzetan: "*Emen ipiñi diguten zine berriak igandean izan zuan bere irikiera ikusle ugari bertan izanik nola arratsalde ala illuntzeko "puntziuetan"*.

Hurrengo asteburuan ere, abenduaren 25ian eta 26xan, herritxarrak desiatzen egon ei ziran pelikulak ikusteko.

Zapatuan, "*Scheriff bondadoso*" pelikula dramatikua ikusi zeuen, bi zatitxan; haren atzetik, beste hau: "*la extarordinaria y chistosísima película cómica de "Marinero de agua dulce" interpretado por el famoso artista cómico Harold Lloyd"*. Domeka arratsaldian, berriz, beste bi honek: "*la atrayente película cómica en una parte "Novio en paños menores"*; ondoren, *"la grandiosa superproducción dramática en cinco partes titulada "La heroina de Santa Elena"*.



Pentsatzekua da eztitxan egongo zirala mutrikuarrak, izan ere jaixetan bakarrik ez, urte osuan ikusi zeikiezen pelikulak... Aukeran, gaiñera, komikuak eta dramatikuak.

Zubiagako zine haura zabaldu eta lehelengo bi asteburuak pasautakuan, hau idatzi zeuen "El País Vasco" egunkarixan: "*fueron aplaudidas ni más ni menos, que si fuesen teatrales, por grupos entusiastas de individuos, fuertemente impresionados, por interpretaciones que realmente para Motrico, más parecen sueño que realidad*".

1927. urteko errege-egunian ere bete-bete eginda egon zan zinia. "*La Princesa de las ostras*" eta "*El triunfo de Tomasín*" pelikulak eman zitxuen.

Handik hiru egunera, domekan, Paulino Uzkudun eta Erminio Spalla boxeolarixek Bartzelonan jokatutako txapelketia ikusi ahal izan zan, "*Campeonato de Boxeo entre Uzcudun y Spalla*". Pelikula komiko bat ere eman zeuen egun hartan, "*Como sueñan las glotonas*", bi zatitxan.

"CINE FRONTÓN" EDO MAITENA

"Itxas-Aurre" idazliari esker badakigu noiz sortu zan Mutrikun zine "berrixa" egitxeko asmua. 1928ko urrixaren 7xan, ziniaren kontrako jarrera garbi azalduz, hauxe idatzi zoan: "*Zine berria? Lengoa gutxi dalakuan, zine berria ipintzera ei dijuaz, lengoa zine ukullu bazan oraingo[a] zer izango ote da, zine korta?*".

Eleiz atzian, Plaza txikixa baiño gorago, trinketia zauan, Ondarrurako bidiaren aldamenian. 1929. urtian trinkete haura moldatu eta zinia eta etxiak egin zitxuen bertan.

Edozela ere, 1930.urterako "*Cine Frontón*" izenez agertzen da zine haura artxibo eta hemeroteketan. Dana dala, mutrikuarrek trinketia esaten zixuen, "*trinketeko zinia*".

Eraikin altua zan, eta, trinkeitia izandakua zanez, luzia eta estua ere bai. Etxe adosatua zakan aldamenian, eta horrek L itxuria ematen zion. Etxe hartan, Iparragirre-Aizpuru famelixa bizi zan, beurak ziran-eta jabiak eta arduradunak. Adin batetik gorakuek ondotxo gogoratuko deue Mari Cruz Iparragirre "*Makinistiarra*", eta haren senarra, Esteban Legarda. Ziniak, sarreran, taberna txiki bat ere bazakan.

Bi altura zakazen ziniak, eta gaztiak-eta goiko aldera juaten ziran, "gallinerora".

1940. urtian "Maitena" izena jarri zixuen, "Cinema Maitena". Eta "*Zubixako zinian*" bezala, hemen ere ume asko ibiltzen zan, izan ere, domeka eta jaixegunetan umientzako emanaldixa egoten zan, arratsaldeko hiruretan.

SOIÑUZKO ZINIA

1935eko otsaillaren 2xa. Urte hartakua kandelaixo egun espeziala izan zan Mutrikun; hauxe irakurri zeiken ondorengo egunetako prentsan: "*se inauguró el cine parlante*". Ordura arteko pelikulak mutuak ziran, baiña egun hartakua soiñuduna zan!!!! Lehelengua Mutrikun.

Hala ekarri zoan El Diario Vasco egunkarixak (1935-02-09): "*El pasado sábado, y con un lleno imponente, se proyectó en el Cine Frontón la película sonora "Se ha fugado un preso"*. Gaiñera, Juan Pisón Pagoaga (Juan de Landa) aktore mutrikuarrak parte hartzen zoan pelikula hartan... "*Por tal motivo y por tratarse de la primera película parlante que se proyectaba, acudió casi todo el pueblo y muchos de Ondarroa y Deva*". Bixaramunian ere jende asko juan zan eta "No hay billetes" kartela eskegi bihar izan ei zeuen.

1948 edo 1949. urtian, Maitena ziniaren arkuak huts egin eta behia jo zoan. Zorionez ez zoan iñor harrapatu azpixan. 1949. urteko zemendixan Justo Urkiri bazabillen zine berri bat (hirugarrena!) egitxeko eskaeria egitxen udaletxian, "*Proyecto de Cine Teatro*", hain zuzen ere gehixenon goguan izango dan "Ederrena"... Baiña hori hurrengo baterako "pelikulia" da.

Josu Larrañaga Arrieta

aldez aurreko borondateen dokumentua

BESTALDEKO HAIZEARI AURRE EGITEAN

Maiz erabilia da, Domu Santu inguruan batik bat, nolakoak ziren gure arbasoen heriotzaren inguruko ohiturak. Baina, gaur egun, gero eta ugariago ditugun iraupen luzeko eritasunak hurbiletik ikusita ere, ez dugu nahi heriotzaz mintzatu, nahiz eta unea iritsiko zaigula ziurtasunez jakin.

Familia eta komunitatearen medikuntza ikuspegitik hasiak ziren anbulatorioko medikuak formakuntza lanetan herri-arte mailan. Horietako baten erabaki zuten **"Aldez aurreko borondateen dokumentua"** abian jartzea. Urrats batzuk emanak dituzte, eta, hedapen handiagoa izan dezan, dokumentu horri buruzko azalpenak eman dizkigute. Dokumentu legala denez, garrantzi handia du medikuen jokaera ziurtatzeko, unea iristen denean.

Noiz eta nola jarri duzue abian "*Aldez aurreko Borondateen dokumentua*"?

Familia eta komunitatearen medikuntza bezala definitua dago gure beharra, nahiz-eta gure lan-baldintzek ez diguten aukera gehiegirik ematen anbulatoriotik kanpo aritzeko. Ikuspegi horretatik ekin genion inguruko herriko medikuok aktibitate batzuk aurrera eramateari. Artrosiaren inguruan genbiltzan Deban, Victor mediku jubilatua tarteko, eta zera aipatu zigun: dolu edo atsekabe talde batean ari zenean, gaixoaren bizitzaren azken uneetan konflikto asko sortzen zirela familiakoak tarteko, eta ez zegoela dolu hura behar bezala bideratzerik, konpondu gabeko zenbait gauzari bide eman gabe.

Horretaz guztiok jabe izanik, "Aldez aurreko borondateen dokumentua" abian jartzea erabaki genuen gure ahal murritzak erabiliz. Udaberrian prestatu genuen hitzaldi bat Zabielen Victorrek berak zuzenduta, eta anbulatorioan eskura jarri genituen orriak, ondoren etorriko zen formakuntzan parte hartu nahi zutenen izenak jasotzeko.

Zein ezaugarri ditu dokumentu horrek?

Aspalditik dago dokumentua Osakidetzan, euskaraz zein erdaraz. Edozein notario bitarteko egin daitekeen arren, dokumentu legala denez, formulario bat bete beharra dago, ez da zeharo askea. Anbulatoriotik laguntzen dugu, dokumentua betetzerakoan jarritakoak ondo ulertzen, eta geu arduratzen gara ondoren Gasteizko Erregistrora bidaltzen. Estatu mailan ere Erregistro orokor bat dago, komunitate autonomoen arteko loturak ziurtatzeko.

Oinarrizko lau atal ditu: 1) Aldez aurreko borondateen dokumentua. 2) Ordezkariak izendatzea. 3) Ordezkarien onarpena, eta 4) Lekukoen adierazpena

Zein erantzun jaso duzue herritarrengandik, eta nola daramazue ekimena?

Guk garrantzia handia ematen diogu dokumentuari, baina jakitun gara ez dela hain erraza pentsaera hori komunitatean zabaldu eta nork bere egitea. Gure ikuspegitik nahiko apala izan zen hitzaldira etorri zen jende kopurua: hogei-hogeita hamar lagun ziren Zabielera azaldu zirenak (dirudienez Anaiarte Biltokikoak ere zerbait zuten antolatuta egun berean), eta kopuru berdintsuak jarraitzen dute hurrengo urratsak ematen.

Udaberrian lehen kontaktua izan ondoren, gure ahal murritzak tarteko, kostatu egin zaigu bigarren bilerarako deia egitea. Horretan azalpen gehiago eta zehatzagoak eman genituen, eta, orain gutxiko, eta azkenengo bileran, dokumentua eskuetan zutela eman dizkiegu azalpenak, eta etxera eraman dute hurrengo bileran beteta ekartzeko.

Daukagun espazioak hala behartuta, bi taldetan banatuta egin ditugu bilerak. Hurrengo bileran orraztuko ditugu dokumentuan, eta bertan zuzenduko sortzen diren zalantza edo kezkak.

Hurrengo eginkizuna, dokumentu guztiak Gasteizko Erregistrora bidaltzea, bertan artxibatuak izan daitezen.

Eginkizun honek ez du bukaerarik, beraz, inork pausu berberak eman nahi baditu, anbulatorioko sarreran aurkituko du izena emateko orriak, eta hamarnako taldetan deituak izango dira prozesu berdina burutzen joateko. Aukera hori beti egongo da zabalik.

Nola jakingo dute dokumentua egin dutenek edo ingurukoek ziurtatuta dituztela borondate horiek?

Dokumentua Gasteizera iristean, interesatuari jakinaraziko diote bertatik erregistratuta daudela bere borondateak, eta mediku bakoitzaren ordenagailuan, pazientearen izena sartzean, esku formako ikur bat azalduko zaio adieraziko diona pertsona horrek Aldez Aurreko Borondateen Dokumentua egina duela.

Eta ezbeharren bat gertatuz gero, zein da bide errazena jakiteko zeintzuk diren azken borondateak?

Logikoena eta komenigarriena da ordezkariak dokumentuaren fotokopia bat edukitzea gordeta. Hala ere, anbulatoriora zuzenean agertuz gero, momentuan dago jakitea Aldez Aurreko Borondateen Dokumentua egina duen ala ez. Kontutan izan, baita ere, Osakidetza osoa sare informatikoan dagoela, beraz ez da izango zaila

erabakia libreki hartzeko gai naizelarik, eta gogoeta egiteko behar nuen informazioa jaso ondoren, honako hau adierazi nahi dut: dokumentu honetan aurrerago zehazten ditudan tratamenduak eta zainketak onartu eta/edo errefusatzen ditut, eta horrela kontuan hartzea nahi dut, nire egoera fisikoa eta/edo psikikoaren ondorioz, neure borondatea adierazterik ez daukadan egunean.

dokumentura iristea. Arestian aipatu bezala, Estatuko Erregistro bat ere badago EAEtik kanpo gertatuz gero, nahiz eta ez dugun frogatua horren funtzionamendu maila.

Zergatik ematen diozue garrantzia dokumentuari?

Bi ikuspegitatik begiratzen diogu. Batetik, Victorrek esaten zigun bezala, bere esperientzian bizi izandako gatazkak ekiditeko, ez egoteko zalantzarik pausu medikoak ematerakoan, eta familiak ere unea ziurtasunez bizi dezan. Bestetik, garrantzia ematen diogu, ez dugulako ohiko, ez da gutxiago ere, gaurko gizartearen antolakuntzan heriotzaren presentzia. Dena dugu antolatuta heriotza saihestuta geldi dadin: ez dugu gure solasetan aipatzen, etxetik tanatorioa jauzi egin dugu, haurrak ez dira enteratu behar... Eta bizitzea gertatzean, neofito edo hasi-berriaren tankerara aurre egin behar izaten diogu, nondik nora gabiltzan ondo jakin gabe. Dokumentua prestatzerakoan hausnarketa interesgarri bat egitera behartzen gaitu, eta hori baikorra da.

Azpimarratu beharra daukagu dokumentua ez dela behin-betikoa. Aldatzeko aukera beti izango dugula.

Estatistikak modan dauden honetan, eta dokumentuaren garrantzia adierazteko, jaso diren datu batzuk emango ditugu adibide gisa: herritarrei galdetzean gaixo izatean non hil nahiko luketen, %90ek diote etxean hil nahiko luketela; galdera bera gaixoei zuzenean egitean, %80 dira etxean hil nahiko luketela esaten dutenak; eta errealitatean %70 dira azken hatsa ospitalean ematen dutenak.

Gaur egun, nola dago antolatuta Osakidetzan azken une horietarako atentzioa?

Uneoro ematen dira aurrera begirako urratsak. Formakuntza aldetik, oraindik hutsune nabariak sumatzen dira zaintza aringarrien espezialitatean, familia medikuek eta beste gutxik dute aukera graduondoko ikasketak egiteko alor horretan. Mediku zenbaitek are gehiago egiten dute aurrera, esatean ez dagoela farmakologiatik kanpoko formakuntzarik, edo behintzat, alor batzuk ez direla ukitu ere egiten, musika-terapia eta fisioterapia adibide. Nabari egiten dela esaten digute gaixo eta familiakoek ospitaleko espezialitate ezberdinen arteko medikuen jokamoldea gaixoarekin, eta ez hain zuzen profesionalen aldetik begiratuta, horretan ez dute azaltzen kexarik.

Dena den, urte batzuk badira Mendaroko ospitalean etxez-etxeko arreta taldea osatu zela. Ezagutzen ditugulako, eta eurekin kontaktuan izan direnetik jasotzen ditugunak entzunda, profesional onak ditugula ziurtatzen dugu. Teorian, euren lana ospitaleko alde positiboak etxera eramatea da, baina, horrez gain, etxeko giro positiboaz blaitzen dira gaixoari atentzioa prestatzean. Gaixoek familiakotzat hartzen dituzte. Mutrikuko anbulatoriotik erizainak dira zubi-lanak egiten dituztenak, eta erantzun baikorrak jasotzen ditugu baita ere.

Ezer gehiago esateko?

Soilik azaldu nahi genuke, presente dugula gure lan-alorra ez dela soilik pertsonei zuzenean atenditzea, arlo komunitarioan jarduteak garrantzi handia duela, eta hasieran besterik ez gaudela. Gure baliabideak murritzak dira zenbait xede planteatzeko, baina gure kontsultetara iristen direnen kolaborazioak ere lagunduko digutelako ustean gara.



MOTRIKUTIK AUSTRALIARA

1927garren urtean Motrikutik Australiara joan ziren, desertore, lau mutil: Frantzisko Txurruka, Maixakoa; Arrieta, Langa-Etxebarrikoa; "Pikua", Pikua baserrikoa; eta Zezilio Basurko, Aategikoa. Azken honek bidali zituen betso hauek Australiatik.



1/
Milla urte ta bederatzireun
ogeitazazpi garrena,
Kristo zerutik jetxi zanetik
orain pasatzen gaudena;
Australia'ra sartu ezkero
au kontzaten det aurrena,
mundu onetan nik ezagutu
dedanik urte txarrena.

2/
Pentsamentu bat orain artu det
bertso batzuek jartzeko,
plaza batian kantatziarren
jentiak aditutzeko;
Australia'tik bialtzen ditut
España'n inprentatzeko,
lagun zar bati agintzen diot
nire errian saltzeko.

3/
Ortik onera pasatu ditut
lur ta itxaso luziak,
prantzes barkuak ekarri nindun
irugarrengo klasian;
gutxi jan eta padezituaz
egarri eta gosiak,
nunbait merezi izango nituen
kastigu oiek guztiak.

4/
Geroko penak ekartzen ditu
aita ta ama uztiak,
bizi-modua zer dan guk emen
ikasten degu gaztiak;
denpora onekin padezituaz
pasako dira guztiak,
oraindañoko urtiak baiño
erosuago dek aztia.

5/
Ogeita bat urte artian
aita ta amak azita,
onera zertan etorri giñan
España'n ondo bizita?
Au dek mutillen ibildadia
osasun ona eukita,
jango badegu lana egin bear
goizean goizo jaikita.

6/
Jaun Zerukoak orain eman dit
akordatzeko grazia,
nola naguan aita ta amak
ondo kostata azia;
egun batian pentsatu nuan
Australia ikustia,
neronen faltaz badaukat orain
emen bizitza tristia.

7/
Gu emen nola bizi geraden
esango diet danari:
arrazoi txarrak aditu bear
ta gogor eldu lanari;
kalabazia tomatiakin
dirade gure janari,
eta errekan geldi daguan
ura gañetik edari.

8/
Ondo kostia da emen orain
irabazten dan dirua,
egun luzia lanerako ta
beti eguzki berua;
lendik ez nitzan listua baiño
ia galdu zait burua,
txerriai ere ez diot opa
olako bizi-modua.

9/
Nere ideaz etorri nitzan
Australia'ra igesi,
nahi nuelako ondo bizi
ta diru asko irabazi;
ez etortzeko esanagaitik
ez dirate galerazi,
entzun txarreko pizti gaiztuak
ez du besterik merezi.

10/
Au ere esan egin bear det
daukadan arte buruan:
zapai batian biok lo eiten degu
ijituaren moduan;
satisfazio guztiz onekin
biok alkarren onduan,
«au baiño mutil oberik ez dek
-pentsatzen dala- munduan».

11/
Orain jendiak pentsatzen badu
esana guzurra dala,
etorri eta proba dezala
gusto duanikan bada;
biajeko lain egingo al degu
iñoiz nola edo ala,
ortakoz lana egin bearko
egunez ezer ez dala.

12/
Nungua naizen ez det ukatzen,
ni naiz Gipuzkoa'kua,
da nere lagun maite dedan au
Bizkaia'n bataiatua;
onek esan dit amairu bertso
badirade lan naikua,
orain beste bat ipíní eta
akabatzera nijua.

13/
Amairu bertso atera ditut
nai dizkienak ikasi,
etorri gabe obe dezute
emengo berri ikusi;
enteratzeko paper au artu,
ez da batere garezti,
nere lagunak salduko ditu
iñok nai badu erosi.




TXAPELA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN!

Mutrikuko **BERTAN** Merkatarien elkarteak udari begira lehiaketa aparta burutu du, **"Mutrikuarrak munduan oporretan"**. Herriko **BERTAN**eko dendetan globoak jaso ondoren, oporretako argazkietan azaldu behar ziren globoa erakutsiz. Hogeita lau izan da parte hartzaileak eta gustu guztietarako argazkiak izan dira **BERTAN**eko instagram-era edo Facebook-era bidali dituztenak. (Ikusgai daude aipatu orrietan). Hiru irabazleek **BERTAN** elkarteko dendetan trukatzeko bonoak eskuratu dituzte.







#mutrikuarrakmunduan

ZORIONAGURRAKZORIONAGUR



MIA
Dagoeneko bi urte haundi gure etxeko larrosiak! Zorionak eta muxu goxuak etxeko danon partez!



MIA eta JANIRE
Urriaren 5ian eta 21ian zuen urtebetetzea izan delako... Zorionak bikote! Muxu potolo asko etxekuen partez eta segi holakuak izaten.



JOXEBA eta MALEN
Zorionak bikote!
Jarraitxu orain arte bezelakuak izaten eta gu zuen onduan poz-pozik berriz urte berri bat ospatzeko!



ELENE
Zorionak!
Tranpakaleko poxpolinari mila muxu danon partez!



JOSEBE eta ZIGOR
Zorionak ezkonberriei!
Elkar bizitza oparoa izan dezazuela!
Lagun danon, danon, eta danon partez.



INAZIO eta ANA MARI
Zorionak bioi, irailean eta urrian zuen urtebetetzeak ospatu dituzuelako.
Jarraitu orain arte bezalako alai eta indartsu!



MAITE
Zorionak politta!
Matxo handi bat asko maite zaituen familiaren partez.

ZORIONTZEKO BIDEAK

kalaputxi2001@gmail.com
whatsapp 635748393





zuen elkartearen ekitaldien berri emateko idatzi helbide honetara:

aldizkaria@kalaputxi.eus

eta hemen argitaratuko ditugu iragartzeko dituzuenak

Argazki Zaharrak



Lagun artean, 1913 urtean
Pakita Odriozola, Dona Arrasate, Dolores Yurrita,
Maria Txurruka, Antonia Txurruka, Dolores Subinas.

Begoña Abaituak utzitako argazkia

Argazki zaharrak erakutsi nahi?
>> kalaputxi2001@gmail.com
>> wathsapp: 635748393
>> Ansorregi zapata denda

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku


ANSORREGI
oinetakoak
erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

URRIA		AZAROA	
21etik 24ra	Amaia Zalduegi	1etik 3ra	Lon Apraiz
25etik 27ra	Hiart Burgoa	4tik 7ra	Hiart Burgoa
zapatu (26) goizean, Lon Apraiz		8tik 10era	Amaia Zalduegi
28tik 31ra	Lasuen-Elezgarai	zapatu (9) goizean, Lasuen-Elezgarai	
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		11tik 14ra	Lon Apraiz
Elgoibar		15etik 17ra	Lasuen-Elezgarai
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		18tik 21era	Amaia Zalduegi
Mercedes **ZUMETA**		22tik 24ra	Hiart Burgoa
San Agustin kalea 5, Eibar		zapatu (23) goizean, Lon Apraiz	
943 82 04 98		25etik 28ra	Lasuen-Elezgarai

MENDI IRTEERAK

urriak 27

Beteranoen martxa Arnora

azaroak 17

Elizondo - ALBA - Elizondo

abenduak 1

ARNO inguruak

Burumendi Mendi Elkartea

ODOLA EMATEA

abenduak 13

Anbulatorioan, 18:00etan

Gipuzkoako Odol Emaileak

AGENDA

GABA BELTZA

urriak 24, eguena

17:30 Nerea Mendizabalen hitzaldia:

Itzalitako kalabazen berpiztea

urriak 29, martitzena

19:00 Josu Ozaitaren hitzaldia

Gaba beltzaren inguruko ikerketa eta tailer gomendioak

urriak 31, eguena

16:30-18:00 Gaztelekuan. Gaba Beltzeko elementuekin jolasean! LH 2-3-4koak Txantxangorrirekin

18:00-19:30 Zabiel Kultur Etxean. Gaba Beltzeko artistatxoak! eskulanak HHkoak eta LH1ekoak Txantxangorrirekin

20:00 Axuri Beltza kalejira Gure Ametsa Dantza Taldea, txistulariak eta trikitilariak

Ondoren, Talaixako mamuaren erreketa Gaztetxearen eskutik

azaroak 1, barixakua, Domu Santu eguna

Kanposantua egun osoan zabalik

20:30 LEKITTOKO DEABRUAK antzerki taldiak kalejira

azaroak 2, zapatua

17:00 Gaztelekuan zine emanaldia

19:00 ARima Dance taldearen kalejira Albokatik frontoira

20:00 - 00:00 Diskofesta Beheko plazan

azaroak 3, domeka

19:00 Zine Forum Zabielen

ANTZERKIAZ BLAI

azaroak 8, barixakua

19:00 Txarriboda antzezlana HIKA teatroa

azaroak 17, domeka

18:00 Eta harro nago haur antzezlana ZIRTAKA antzeki taldea

azaroak 24

19:00 Goizeko Izarra antzeki taldea

abenduak 1, domeka

19:00 RITA antzezlana TXALO produkzioak

abenduak 14, zapatua

19:00 Akelarre antzerki taldea

abenduak 15, domeka

19:00 Akelarre antzerki taldea

EMANALDI GUZTIAK ZABIEL KULTUR ETXEAN

Zure Elkartearen ekitaldiren bat
edota deialdiren bat
Kalaputxin erakutsi nahi baduzu
idatzi hauetako batera:

kalaputxi2001@gmail.com
whatsappa 635748393

azarokoan argitaratzeko **azaroaren 9rako** bidali zuen lanak

Etxean argazki zahar bat aurkitu duzula...
erakutsiezu mutrikuar guztiei!

KALAPUTXIn

Luardo etxea, behea · Barrenkale, 12

kalaputxi2001@gmail.com · whatsapp: 635748393



Ntra. Sra.
de Begoña
EHORZKETA

Iriagirre z/g

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)



Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es



SAIO GIDATUEN ESKAINTZA

MUTRIKUKO POLIKIROLDEGIA

Mutrikuko Udala

2019

Mutrikuko kiroldegia: 943 603 175 mutrikukokiroldegia@gmail.com kirola@mutriku.net www.mutriku.eus

AKTIBITATE GUZTIAK ZURE ESKURA

Ordutegia	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
09:30	LesMills BODY BALANCE	LesMills BODY PUMP		LesMills CXWORX LesMills BODY STEP	PANCAFIT
10:30		SPINNING			SPINNING
15:00-16:30 19:00-20:30		YOGA			YOGA
18:00	LesMills BODY BALANCE	CROSS TRAINNING	LesMills BODY PUMP	TRX SPINNING	LesMills 17:30 BODY STEP SPINNING 18:30
19:00	LesMills GRIT SPINNING	LesMills CXWORX LesMills BODY STEP SPINNING	LesMills BODY BALANCE SPINNING	LesMills BODY PUMP LesMills CXWORX	
20:00	PANCAFIT	ZUMBA	LesMills GRIT	ZUMBA SPINNING	Larunbata 09:30-10:30 PANCAFIT